



BERNARDO ESTORNES LASA
(1907-1999)

Egilea:

AINHOA BEOLA

Bernardo Estornes Lasa 1907ko maiatzaren 11n jaio zen Izabako Barrika kalean. Hil, berriz, Donostian 1999ko abuztuaren 10ean.

Aita Bernardo Estornes zuen, Izaban jaiotakoa eta gazte zela Bilbora joana, bertan lan egitera. Ama Eleuteria Lasa zuen, izabarra hau ere, eta Estornes aita Bilbotik bueltan zela, ezkondu egin ziren. Aitaren jatorrizko hizkuntza gaztelera zen bitartean, amarena Erronkariko euskara zen.

Ikasketen lehen urteak Izaban burutu ondoren, Zaragozan amaitu zituen Perito eta Merkataritza irakasle ikasketak.

1929an Donostiaratu egin zen, Akademia bat sortuz lehenik. Ondoren Eusko Ikaskuntzan jardun zuen liburuzain eta bulegoko arduradun gisa, 1936. urtera arte.

Lau anaia eta bi arreba izan zituen. Guztiek bere amak zuen dendaren inguruan jardun zuten jolasean eta lehen urteen esperientziak biltzen. Izan ere, denda horren inguruan herriko jendea bildu ohi zen, eta bertatik sortu ere egin ziren

herriarentzat interesgarriak izan zen hainbat proiektu, hala nola, apaizak bideratu zuen kontsumo-kooperatiba, tertulia kulturalak eta abar.

Inaxi Zubizarreta Etxabe donostiarrarekin ezkondu zen Bernardo Estornes Lasa, 1939an Parisen erbesteratuta zeudela. Seme-alabak Idoia, Garikoitz, Itziar eta Amaia dira, Txileko Santiagon sortuak.



Bernardo Estornes Lasa, 1907-1999

EUSKARAREN INGURUAN

Gaztea zela eta Izaban bizi zelarik, amaren dendan Erronkariko euskara hitz egiten zen, bai eta tabernan eta tertulietan ere; elizan eta eskolan ordea, hitzik ez zen entzuten.

Era berean, nekazariak eta artzainak, erronkariarrak nahiz zuberotarrak izan, muga politikoak bereizten zituela erreparatu gabe, euskaraz jarduten zuten elkarren artean.

Garai hartan hasi zen ohartzen Bernardo Estornes Lasa, norberaren euskara desberdina izan arren, hasieran uste baino komuntasun gehiago bazituztela. Eta euskara inguru konkretu batzuetan erabiltzen bazen ere, beste hainbat lekutara ez zela iristen.

Eskolan zirela, euskal hitzez jositako gaztelera mintzo ziren, konturatu ere egin gabe. Urte batzuk beranduago, bere bizitzaren inguruko memoriak idazten, atzera begira jarri eta gaztelerazko terminotzat zituen hainbat, euskara hutsezkoak zirela ohartu zen.

Edozer izanda ere, idazlearen euskara sekula ez zen berak nahi bezain zuzena. Honela diosku Txileko erbestean jarduten duenean, seme-alabei euskaraz hitz egiten baitzien, hizkuntza maila kaxkarra eduki arren.

Bere lanetan ere, gaztelera eta Erronkariko euskara erabili izan zituen, nahiz eta euskaraz idatzi baino gehiago, euskararen inguruko lanak argitaratu nahi izan zituen.

Era berean ohartuta zegoen Izaba eta Erronkariko euskara galtzeko zorian zegoela, eta hitzun-kopuruak atzera egiten zuela, ezer egin ahal izan gabe.



Erronkari lanean, eskualdeko janzkeren, ohituren, hizkeraren eta folkloreaken berri zehatza eta zabala ematen da, ilustrazio ugarirekin batera



El mundo en la mente popular vasca Estornes Lasa anaien Auñamendi argitaletxean argitaratu zen lanetako bat izan zen; bertan Bernardo Estornes Lasarenak ez ezik, beste egileen lanak ere argitaratu ziren, hala nola, J.M. Barandiaranek idatzitakoak, atalka argitaratu zirenak eta argitalpen desberdinak izan zituztenak

IZABATIK DONOSTIARA

1929an Donostiaratu zen lehen aldiz, gurasoekin eta familiarekin oporrak igarotzera joanda. Bertan zegoela, Eusko Ikaskuntzak antolatzen zituen Udako Ikastaroetan jardun zuen.

Ikastarootan Angel Apraiz ezagutu zuen, eta hark eskaini zion Eusko Ikaskuntzaren barruan bere lehen lana Bernardo Estornesi.

Halere, Eusko Ikaskuntzan betetzen zuen lanaz gain, Donostian merkatalgintzaren inguruko akademia jarri behar zuela bururatu eta hala egin zuen urte hartan bertan. Akademiako sarreran eskolak ele bitan, euskaraz eta gazteleraz, eskaintzen zirela azaltzen zuen kartel handi bat jarri zuen. Euskarazko eskolak Ramon Inzagarayk ematen zituen.

Jadanik Zaragozan zela lehen idazlanak egiten hasi bazen ere, Donostian ekin zion indar handiagoarekin Estornes Lasaren lana eta bizimodua izan zen grinari: liburugintzaren inguruko lana, idazle, ikerle eta editore gisa.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA

Donostiaratu zenean afiliatu zen Alderdian. Halere, Napar Buru Batzarrarekin harremanak egin ondoren, Izaba Buru Batzarra osatzea erabaki zuten.

Egitura honen bitartez, Erronkariko eskualdean zehar hainbat mitin antolatu zuten berak eta Goñik Errepublikara-garaian, Aitzol, Jose Antonio Agirre, Manuel Irujo eta beste hainbat erakarriz bertara.

Alderdiko partaideak zen arren, inoiz ez zuen goi-kargurik hartu nahi izan, bere lan kulturalak burutu ahal izateko, autonomia mantendu beharra zuelako usteaz jabetua baitzen.

Azken finean Estornes Lasa ez zen inolaz ere gizon politikoa, kulturgintzan murgildutako aditua baizik, une jakin batean alderdi politiko batean aktiboki parte hartu bazuen ere.



1928an, Estornes Lasa familia
(ezkenetik hasita, hirugarrena da Bernardo)

GERRA ZIBILA ETA ERBESTEA

Gerra zibilak eztanda egin zuenean, Estornes Lasa familiak Donostiatik Zarautzera eta handik Donibane-Lohizunera alde egin zuen. Ondoren Donibanetik Pabera joan ziren eta gero handik Belgikara.

Belgikatik, berriz ere, Frantziara itzuli ondoren, alemanak sartu ziren Frantziara, eta orduan Txilera alde egin behar izan zuten itsasontziz.

Txileko Santiagora iritsi ziren, eta Bernardo eta Inaxiren seme-alabak han jaio ziren, erbestean. Hantxe bizi izan ziren bitartean, familiako hizkuntza beti euskara izan zen, nahiz eta ingurua erabat erdalduna zuten.

Txilen pasa zituzten lehen urteetan, perfume-laborategia sortu zuten, dirurik gabe alde egin baitzuten ihesian. Laborategi hari esker urteak egin zituzten Txilen, sortutako negozioak aurrera egin baitzuen.

1958an irten ziren Txiletik bueltan Donostiara itzultzeko, Bernardo, Inaxi emaztea, seme-alabak eta Mariano anaia.



1938an, anaiekin (Bernardo eskubian)



Estornes familia Txilen Justo Mokoroa eskolapioarekin

SORMENA

Ikasle zela argitaratu zuen bere lehen obra, *Erronkari (El Valle del Roncal)*, 1927. urtean. Harrezkero, etenik gabe jardun zuen euskara eta euskalduntasunari buruzko obrak argitaratzen.

Egilearen laurogei obratik gora aurki daiteke, gaia antzekoa izanagatik, mota askotako lanak aurki ditzakegu: poesia da maizenik landu zuen generoa, nahiz eta antropologia, hizkuntzalaritzaren ingurukoak eta ikerketa-lanak diren aipagarriak. Nabarmentzekoak dira, halaber, soziologia inguruan eta etnologiari buruz egin zituen lanak.


Aurrerago aipatutako guztiez gain, nabarmentzekoa da *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* sortu eta bultzatu izana, hiztegia, bibliografia eta entziklopedia biltzen dituen obra, eta gaurko egunean ere euskal produkzioaren erreferente nagusienetakoa dena.

LEHEN LANAK

Haur zela ipuinak asmatzen zituen etxeko txikienei kontatzeko, lokartu aurretik. Honela, idazten ikasi zuenean, eta irakurtzeari ekin zionean —*El Sol* egunkaria jasotzen zen etxean, bai eta *Blanco y Negro* eta *La Esfera* ere—, naturalki asmatutako kontuak idazten hasi zen.

Aitak, goian aipatutako aldizkariez gain, *España*, *El Almanaque Cervantino* eta gisako argitalpenak jasotzen zituen. Etxean, beraz, bazegoen nolabaiteko giro literarioa.


1923an, Zaragozan ikasten ari zela ekin zion *Erronkari*, lehen liburua, idazteari. Liburua eskualdeko datu geografiko, historiko eta bibliografikoez gain, arteari, kondairei eta janzkerei buruzko pasarteekin horniturik ageri da.



EUSKARAREKIKO MAITASUNA

Izaban bizi zela amari eta herrikoei erronkarieraz hitz egiten entzuten zien arren, idazleak ez zuen hizkuntza menderatzen. Halere, Campionen obrak eta Iturraldereen narrazioak irakurtzeari ekin zion.


Zaragozan ikasten ari zela, Eusko Ikaskuntzako bazkide egin zen, eta *Zeruko Argia*-rekin batera, lehen *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos* argitalpena eskuratzeko aukera izan zuen.



Era berean, Izabako izebei, euskaraz hitz egiten ari zirela, solasaldien transkripzioak egiten zizkien; handik lortutako datuekin urte batzuk beranduago erronkarierazko lehen hiztegi-lana argitaratu zuen.

Erronkariko hizkera hilzorian zegoela ohartu zen lehenengoetakoa izan zen. Eta neurri batean galera hari aurre egiteko, Erronkariko euskarari buruzko lanak bermatu zituen, Euskal Herriko kulturari eta Nafarroako Erresumari buruzko lanak burutzen zituen bitartean.

7



Erronkarierari buruzko lanak argitaratu zituenez gero, bertako etnografia ere landu zuen liburuetan zehar



Estornes Lasaren lan bikainenetakoa izan zen Erronkariko euskararen inguruan egin zuen hiztegia, bertako euskara galtzear zegoen garaian

EUSKAL KULTURA

Eusko Ikaskuntzan lanean hasi zenetik, *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal Eснаlea* aldizkariak bultzatzen zituen jendearekin, eta Gregorio Mujikarekin bereziki, izan zuen hainbat harreman.

Hauek guztiek euskararekiko sentitzen zuten maitasunak biltzen zituen, Aitzolek zuzentzen zuen Euskaltzaleak taldeko jendearekin batera.

Euskarazko produkzioa indartu nahi zuten letren alorrean, eta honetarako harremanak izan zituzten, denen artean, bakoitzak bere alorrari eutsiz, euskarazko sormena bultzatzearen.

Garai hartan sortu zen Estornes Lasaren, Lizardi, Orixe eta Lauaxetaren arteko harremana, euskaltzale bezala lehenik, eta lagun minak bezala ondoren.


Elkarren artean informazioa trukatzeko zuten, horrela Orixe *Euskaldunak* obra prestatzen ari zenean, Estornes Lasak hainbat datu historiko eman zion.

Euskaltzaindiaren inguruko jendearekin ere hainbat harreman izan zuen, Resurrección María Azkue, Altube, Olabide, Eguzkitza eta beste hainbatekin. Estornesen grina erronkaria zenez gero, elkarri laguntzen zioten euskararen inguruko gaietan.

1966an euskaltzain oso izendatu zuten, eta beranduago beste hainbat euskaltzainekin batera ohorezko euskaltzain.



Como han sido y como son los vascos lanean, beste egile batzuekin batera, atalka eta liburuki desberdinetan zehar, izaera, janzkera eta historiaren berri ematen saiatu zen Estornes Lasa, azterketa konparatiboak eginez



BIBLIOGRAFIA LANAK


Bibliografia-munduarekiko lehen harremana, Eusko Ikaskuntzaren bitartez izan zuen, bertako liburutegiko arduradun gisa zebilela lanean. Garai hartan (1929) ez zegoen euskarazko gaiari buruzko bibliografia asko, eta Bernardo Estornesek liburutegian jadanik zegoena irakurtzeari ekin zion, bai eta besteetan zer aurki zitekeen arakatzeari ere.

Eusko Ikaskuntzaren liburutegian hainbat aldizkari jasotzen zen, bere kultura bibliografikoa asetzeko baliagarriak izan zitzaizkionak: *La Voz de Guipúzcoa*, *El Liberal*, *El Pensamiento Navarro*, *El Diario de Navarra*, *El Pueblo Vasco*, *La Constanza*, *Euzkadi*, *El Día*, *El Pensamiento Alavés* eta abar.

Euskal produkzioaren inguruko entziklopedia biografiko bat egin behar izatearen garrantzia aipatu zuen jadanik bere lehen urteetan, ondoren Auñamendiren bitartez burutu zuelarik.




Bernardo Estornes etnografo eta editore izateaz gain, poesia landu eta bildu egiten zuen. Poesian egin zuen lan bikainenetakoa da *El Cantar de Roncesvalles*



LEHEN LANAK

Izabatik Donostiara joan zenean akademia bat jarri zuen. Handik gutxira bere anaia deitu zuen, berarekin lanean jar zedin.

10



Sobre Historia y Origenes de los Vascos lana idatzi zuen, mapa eta grafikoz horniturik ageri dena

Horrela, argitalpengintzan hasi ziren sartzen, beraien lanak argitaratzeko lehenik, eta besteinei ere kabida emanaz, ondoren.

Auñamendi, Beñat Idaztiak, Colección Zabalkundea, Historia del País Vasco eta beste hainbat bilduma sortu ziren horrela.

Mariano, bere anaia, argitalpenen kudeaketaz arduratzen zen: banaketa eta salmenta-lanak, bezeroak, langileak eta antzeko gauzak berak gobernatzen zituen. Bernardo berriz, argitaratu beharreko lanak idazteaz edo bilatzeaz arduratzen zen.

Estornes Lasak, argitaletxea zela eta, zentsurarekin arazo ugari izan zituen beti. Zentsura gainditzeko, hainbat ideia landu behar izan zuen urteetan, berak argitaldari bezala, eta idazleekin batera lanean besteetan, arazo gehiegi gabe lanak plazaratzeko garaian.

Lanak saltzeko moduak ere batzuetan arazo bilakatzen ziren, baina, oro har, lan horretan bere anaiak jarduten zuen, etxez etxe eta eskuz esku batez ere egiten baitzen garai haietan salmenta-lana.



ALDIZKARIETAKO LANAK

Lan ugari idatzi zuen garaiko aldizkarietan. Halere, artikulua idatzi baino gehiago, parte aktiboa izan zuen aldizkari horien dinamikan.

Txilen zela *Batasuna* aldizkaria zuzendu zuen, eta ondoren *Euzkadi*-n ere jardun zuen urte luzez kolaborazio-lanak burutzen.

Euzkadi, *El Día*, *Vida Vasca*, *El Mercurio*, *La Nación*, *La Voz de Navarra*, *Yakintza*, *RIEV*, *Kaiku*, *Ekin*, *Batasuna* eta beste hainbat aldizkaritan idazteaz gain, aldizkarien dinamikan ere parte hartu izan zuen.

HISTORIA DEL PAÍS VASCO

Euskal Herriaren inguruko historiaz berri handirik ez zegoela liburugintza-mailan ohartuta, *Historia del País Vasco* obra lantzeari ekin zion Estornes Lasak.

1933an Zarautzen argitaratu zuen, eta ondoren ekin zion salmenta-sarea zabaltzeari estatuan zehar.

Liburuan hainbat dokumentuz gain, mapak eta ilustrazio ugari ageri dira, 448 orrialdeetan zehar.

Obrak Euskal Herriko historiaren bilduma izan nahi du, eta atal politikoak, antropologikoak eta soziologikoak, atal kultural eta linguistikoekin osatuta datoz.



*Zabalkunde*a bilduman historiari buruzko hainbat lan argitaratu zuen, bai eta folkloeari buruzkorik ere

BEÑAT IDAZTIAK ETA ZABALKUNDEA BILDUMA

Beñat Idaztiak bildumaren bitartez, umeentzat kontakizunak argitaratzen zituen.

Bildumako lehen lana, *Sabin euskalduna*, 1931.ean argitaratu zen. Garai hartan ikastolak sortzen ari ziren, eta bertako ikasliburu nagusia zen *Xabiartxo* agortuta zegoen ordurako.

Ikastolan zebiltzan umeentzat ikasliburu gehiago prestatu nahian, gisako lanak argitaratzeari ekin zion.

Jatorriz gaztelera idatzi zuen Estornes Lasak, nahiz eta itzulpenak Agustin Zumalabe donostiarrak egin zizkion euskarara.

Colección Zabalkundea-n, hainbat lan argitaratu zuen Euskal Herriaren historiari buruz. Hauetakoa dugu *Historia Vasca* eta *Euskal Edestia* 1935.ean argitaraturikoa. Lan hori ere lehenik gaztelera idatzi zuen, eta ondoren Ander Arzelus donostiar euskaltzaleak itzuli zuen euskarara.

Urte berean bilduma horretan *Indumentaria Baska* lana argitaratu zuen.



Sabin euskalduna liburuarekin, *Xabiartxo* lana agortu ondoren euskaraz umeek eskulibururik ez zutenez, hutsune hori nolabait bete nahi izan zuen



RIEV

Eusko Ikaskuntzan lanean zebilela, Udako Ikastaroan aurkeztu berri zuen artikulu bat *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en argitara zezala gomendatu zion Julio Urkixok.

1930.ean izan zen hori eta handik aurrera ohiko kolaboratzailea bilakatu zen aldizkariarentzat Estornes Lasa.

Etnologiari buruzko lan labur ugari argitaratu zuen urteetan zehar *RIEV* aldizkarian.



Euskal-Edestia lanean zehar, euskal kondairen berri ematen zaigu, gure historiaren beste parte bat berreskuratu nahian

ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO

Entziklopedia honetan Estornes Lasaren hiru lan bikainenetakoak biltzen dira: *Diccionario Enciclopédico Vasco* batetik, *Enciclopedia Sistemática* bestetik, eta *Bibliografía General Vasca* azkenik.

Gaur egun oraindik argitaratzen dihardute azken letrak, lana urteetan zehar burutu delako, euskarazko bibliografia eta hiztegi entziklopedikoen artean erreferentzia nagusiena bilakaturik.

Lanari Bernardo Estornes Lasak eta bere anaiak ekin zioten arren, Idoia alabak eta laguntzaile-talde zabal batek jardun du lanean berau aurrera atera nahian.




Auñamendi argitaletxearen bitartez, Entziklopedia handia sortzeari ekin zion, Euskal Herriari buruz ziharduenik ez zegoela ohartuta

DICCIONARIO ENCICLOPÉDICO VASCO

Estornes Lasaren lan bikainenetakoa dugu honakoa. *Beñat Idaztiak* lanak argitaratzen eta zabaltzen arduratzen zen gunea, baina erredakzio gunegisa *Zabalkundea* ageri zen.

14

Bi lanotan zebilela, *Euskarazko Hiztegi Entziklopedikoa* prestatzeari ekin zion. Hasieran bitan banatutako orrialdeak izan ziren, euskaraz eta gazteleraz. Bertan jardun zuten hastapenetan laguntzen eta parte hartzen, besteak beste, Aranzadi, Azkue, Barandiaran, Etxegaray, Orixe, Lafitte, Manuel Lekuona, Justo Garate, Aita Donostia eta beste hainbatek.



Hau prestatzen ari zirela, gerra zibila etorri zen eta proiektu guztia bertan behera gelditu zen, debekatu egin baitzitzaien halakorik (eta bestelakorik, noski) argitaratzea.



Bernardo Estornes Lasa lantokian

AUÑAMENDI EDITORIALA

Txiletik itzuli ondoren, lehen urteetan, Auñamendi editorialak Itxaropena argitaletxearen itzalean jardun zuen. Halere 1962an bere izen eta izaera juridiko propioa hartu zuen Auñamendi editorialak, lehenago «Editorial Estornes Lasa Hnos.» deitu zena.


Ondoren ere argitaratu zituzten lanetan, izen nagusia Auñamendik zeraman arren, argitaletxearen izenean beti agertu ziren bi anaiak.

Auñamendin Estornes Lasak bere lanak argitaratzeaz gain, besteenak ere plazatzen zituen. Honela, etnologia, antropologia eta gisako lan ugari argitaratu izan da argitaletxe honetan.


Auñamendi editoriala eta bilduma izan arren, sail desberdinak zituen, hala nola: *Auñamendi* bilduma bera, *Azkue* bilduma, *Aralar*, *Recuerdos* bilduma eta *Zabalkundea* bilduma.

Hauetako bakoitzak gai propioak eta egile berezituak argitaratzen zituen, eta Auñamendi argitaletxearen bitartez plazaratzen zen lan mordoa txukun aurkezteko banatu ziren sail eta bilduma desberdin horiek.

Auñamendi bilduman, historia, etnologia, hiztegi-gintza, literatura, antropologia eta gisako lanak landu ziren. Bertan idatzi zuten egileen artean berriz, Estornes Lasa bera, M. Pelay Orozco, I. Fagoaga, J.M. Barandiaran, Gregorio Mugica, M. Lekuona, J. Urquijo, L.M. Mujika eta beste hainbat ageri dira.



Indumentaria baska etnografia mailan egin zuen lanetako bat da; bertan janzkera desberdinen berri ematen da, marrazkiz horniturik



Egilearen garrantzia, maila batean, landu zituen bildumetan datza, etnografiatik hasi eta bibliografian amaituz. *Fantasia y Realidad* lanean, euskarazko literaturaren antologia bat egiten saiatu zen, garaiko eta lehenagoko euskal idazleak bilduz lan honetan

Azkue bilduman gramatika, hizkuntza eta literatura landu zen bereziki, eta bertan argitaratu zuten idazleen artean ageri dira Umandi, R. Zulaika, A. Arrinda, Oteiza eta Estornes Lasa bera.

Aralar bilduman Estornes Lasak euskaldunen jatorriari buruzko lanak plazaratu zituen, hauen artean daudelarik, besteak beste, *Orígenes de los vascos*, *civilizaciones primitivas*, *albores históricos*; *Orígenes de los vascos*, *romanización*, *testimonio y orígenes de la lengua vasca*; eta *Mensajes orales*, *conclusiones especiales y generales* lan mardulak.

Lengua Vasca bilduman, euskarazko gramatika, hiztegiak eta euskara ikasteko metodoak argitaratu ziren. Bilduma honetan jardun zuten lanean I.L. Mendizabal, T. Agirre, Umandi eta Estornes Lasak berak.


Zabalkundea bilduman berriz, literatura eta saiakera-lanak jorratu ziren bereziki, eta bertan ageri diren tituluaren artean azaltzen dira *Blancos y negros* nobela, *Narraciones vascas*, *Castillos medievales de Navarra*, *Indumentaria vasca*, *La Monja Alférez*, *Literatura Vasca* eta beste. Arturo Campionek, J. Altadill-ek eta Estornes Lasak berak argitaratu zituzten beraien lanak hemen.

BESTE OBRA BATZUK

Ezer baino lehen esan beharra dago Bernardo Estornes Lasaren produkzioa ikaragarria izan dela, ondorengo lerrootan batzuk bakarrik aipatuko direlarik.

Estornes Lasaren lan literarioak ildo nagusi batzuk jarraitzen ditu: batetik Euskal Herriko historiari buruzko lanak daude, bestetik janzkeri eta ohiturei buruzkoak, bai eta euskal ipuin, kondaira eta kantuei buruzkoak ere; ikerketa-lan horiez gain, sormen propioko lanak ere ageri dira, ipuinak eta gisakoak batetik, eta beste egileen lanen bildumak bestetik.

Hurrengo ildo nagusia Estornes Lasak argitaldari gisa markatzen duena da, Auñamendi Edición-en bitartez: barruan ageri diren sortez edo bildumez eta urteak aurrerago sortu zuen Entziklopedia hirukoitzaz (Hiztegia, Bibliografia eta Literatura).



EUSKAL ESTETIKA

Euskal estetikari buruzko lehen lana Buenos Aireseko Ekin argitaletxearekin argitaratu zuen 1952an, *Estética Vasca (Paisaje, Arte, Belleza)* titulupean. Bertan, ondoren idatzi zituen gainontzeko lanetan ikus daitekeenez, pinturari, musikari, folkloreari eta literaturari buruzko atalean lantzen dira, 360 orrialdeetan zehar.

17



Urteetan zehar eta liburu desberdinen bitartez, euskal estetikari buruzko nondik norakoen berri eman zuen, musikatik hasi eta artea nahiz paisaia-motak landuz; lan horiek partituras, mapez eta bestelakoez osaturik ageri ohi dira

ENEKO ARISTA

Eneko Arista, Fundador del Reino de Pamplona y su época lana Buenos Airesen argitaratu zuen Ekin argitaletxeak 1959 urtean.

Izen bereko pertsonaia historikoari buruzko monografia da, eta bertan 824tik 852 bitartean Iruñerrian gertatutakoen berri ematen da, 250 orrialdeetan zehar.

Estornes Lasa jabetuta zegoen gure historiari buruzko hainbat datu kanpotik eman izan direla, eta bazela guk geure historiaz jarduteko garaia. Honela arrazoitzen du hitzaurrean, Eneko Aristari buruzko gorabeherak, Euskal Herriko ikuspegitik eta faktore guztiak kontuan hartuz azaldu behar direla dioskunean.




Buenos Aireseko Ekin argitaletxearekin plazaratu zuen lehen liburua *Eneko Arista* izan zen, Nafarroako Erresumari buruzkoa

ORO DEL EZKA

Mariano Estornes Lasak, anaiak alegia, argitaratu zuen nobela hau, *Auñamendi* bilduman azaldu zen lehen lana izan zen.

Liburua Erronkariko bailaran kokatzen da, eta 400 orrialdeetan zehar eskualdeko pertsonaiak, pasarte historikoekin eta fikziozko beste hainbatekin nahasten dira.

Lehen edizioa plazaratu bezain pronto amaitu zen, eta bigarren argitalpena egin zenean ere, handik gutxira ale bakar bat ere ez zen gelditu salgai.



ORÍGENES DE LOS VASCOS

Auñamendi argitaletxeko *Aralar* bilduman argitaratu zuen lan hau.

Liburuki desberdinetan zehar, euskarazko hizkuntzalaritzarekin loturiko gaiak argitaratu zituen. Honetarako hizkuntzalari hobereenen lanak bereganatu behar izan zituen, horien artean Mitxelena, Caro Baroja, Azkue, Lafon, Lafitte, Schuchardt eta beste agertuz.

Sobre Historia y Orígenes de la Lengua Vasca liburuan, euskararen barne-mailako historia egin behar dela dio, lexikoari buruz egin zirenak hizkuntzaren parte axalenekoei buruzkoak zirelakoan. Hori dela eta, liburuan morfologia, semantika eta hizkuntzaren beraren jatorria lantzeko asmoa zuela aipatzen du egileak hitzaurrean.



Kixmi-ren Kantua lana I. Goikoetxearekin batera egin zuen, eta bertan kondairetan ageri diren pertsonaiak, eta Kixmi bereziki, dira protagonista

KIXMI

El cantar de Kixmi, poema mitologikoa, 1981ean argitaratu zuen.

Lehenago, *Cantar de Roncesvalles* lana argitaratu zuen, 1978an.

Bi lanotan mitologia, kantugintza eta poesia konbinatzen dira. Erronkari inguruko ahozko literatura eta mitologia hartu eta pertsonaia nahiz kantuz beteriko liburuak landu zituen Estornes Lasak.

Kixmi lanean, pertsonaia mitologiko ugari ageri da, Argiko, San Martinico eta beste, tradizioko pertsonaia herrikoiekin batera.



CUENTOS RONCALESES...

Cuentos Roncaleses, poemas y otras cosas Navarras liburuak, 1980an argitaratua, Erronkari inguruko ahozko tradizioa jaso eta biltzen du.

Bertan, gazteleraz idatzitako pasarteak, Erronkariko euskaraz idatzitakoekin konbinatzen dira, Tartaro, Idoia eta gisako pertsonaien pasadizoak kontatuz.


Estornes Lasaren grinetakoa bat izan zen herriko tradizioa jasotzea, eta liburu honetan hala egin zuen, era berean, Erronkariko euskarari bere lekua eskaini ziolarik.



Cantos y Cantares eta *Cuentos Roncaleses*, poema lanetan, poema eta ipuin bildumak eskaintzen ditu. Estornes Lasak poesia landu zuen, berak sortutakoa eta besteenak bilduz eta argitaratuz

EL DUCADO DE VASCONIA

Nafarroako Erresuma sortu aurretik, Baskonian izandako gorabeherak aipatzen dira, dukerriaren garaian. Gertaera horien inguruko datu historikoak oinarritzat hartuz, Estornes Lasak gertaerak berrinterpretatzen ditu liburuan zehar, besteetan aipagai izan diren pasadizoei nolabaiteko lotura ematen dielarik.



El Ducado de Vasconia lana, Estornes Lasaren lan historizista dugu, mapen bitartez osatu zuena

FANTASÍA Y REALIDAD...

Fantasía y Realidad, Antología literaria Vasca lana 1964. urtean argitaratu zuen *Auñamendi* bilduman. Bertan hainbat euskal idazleri buruzko gorabeherak azaltzen dira, hauen artean Orixe, Satarka, J.M. Salaverria, Lizardi, Etxepare, Iparragirre, H. Oloriz eta abar daudelarik.

Euskarazko produkzioa sakabanatuta eta munduan barreiatu zegoela jabetuta, obra honetan, Estornes Lasak lan bikaintzat estimatzen zituenak bildu eta azalpen labur bat ematen saiatu zen, euskal literatura eratu bat bazegoela jakitera eman nahi baitzuen.

Azken finean obraren tituluak dioena egiten saiatu zen, hots, euskal literaturaren antologia labur bat. Lanean, hainbat idazleren berri emateaz gain, euskal literaturaren egoerari buruzko azterketa ere egiten du, zergatiak eta produkzioaren arrazoibideak azalduz.

Bilduma honetan argitaratu zuen lanetako bat Erausoko Katalinarena da, hitzaurrea eta oharra Estornes Lasarenak diren arren, lana protagonistak idatzitakoa da



ZABALKUNDEA SORTAKO LAN BATZUK

Zabalkunde bilduman hainbat lan argitaratu zuen Estornes Lasak berak idatzitakoak, bai eta beste egile batzuek idatzitakoak ere.


Estornes Lasak *Catalina de Erauso: La Monja Alférez* lana idatzi zuen 1934. urtean: berez lana Erausoko Katalinak idatzitako bera da, Estornes Lasaren ohar eta hitzaurrearekin.

Indumentaria Baska lana ere bilduma honetan argitaratu zuen. Bertan janzkerak aipatzen dira, Gernikatik Donostiara eta Gasteiztik Baionara, Erronkarikoak eta Nafarroako beste lekuetako janzkerak ere aipagai direlarik. Soinean janzten direnez gain, kapelak, okasio desberdinetako jantziak eta abar azaltzen dira liburuan.



Euskal Edestia lanean, Metal-Arotik hasi eta gaurko egunera arte, Euskal Herria nola joan den eraikitzen azaltzen du. Gaur egungo zazpi probintziak eta eskualde desberdinak ere aipagai dira obra honetan.

Zabalkundea bilduman, aurrerago aipatu denez, Estornes Lasak bere idazlanak argitaratzeaz gain, beste egile batzuenak ere argitaratzen zituen. Horien artean ageri dira A. Campionen *Blancos y Negros* eta *Narraciones Baskas*, J.M. Barandiaranen *El Hombre Primitivo en el País Vasco*, T. Agirrerren *Garoa*, eta J. Altadillen *Castillos Medievales en Navarra*.



Euskarazko bibliografiarik ez zegoen garaian, lan erraldoi honi ekin zion, bere argitaletxe propioa bazuela-eta

GARAIKIDEAK

Eusko Ikaskuntzan lanean ari zela, euskalgintzan eta abertzaletasunaren inguruan zebiltzan asko ezagutu eta tratatzeko parada izan zuen.


Goian aipatu denez, euskarazko produkzio literarioa altxatu nahian, Estornes Lasaren lehen urteetan Lizardi, Lauaxeta, Aitzol, Aranzadi, Azkue, Orixe eta beste hainbat izen nabarmenekin izan zuen hartu-emanik.

Harreman berezia izan zuen Arturo Campionekin. Estornes Lasa lehen lanekin hasi zenean, Campionen obrak irakurtzen zituen. Urte batzuk beranduago elkar ezagutu zuten eta harrez gero harreman pertsonala eta intelektuala Campionen azken urteetaraino mantendu zuten.

Urte batzuk beranduago, inprenta propioa sortu zuenean, bertan beraien lanak argitaratu nahi zituzten hainbat idazlerekin izan zuen trataturik.

Honela urteetan zehar Gabriel Celayak eta berak gutunak elkarri idatzi zizkioten. Celayak Estornesen argitaletxean lanak argitaratzen zituen, eta sormenari buruzko nahiz salmentari buruzko dudak eta beste, elkarri kontatzen zizkioten. Lan-harreman bezala hasi zuen hura, urte batzuk beranduago adiskidetasun fidela bilakatu zen.

J.M. Satrustegik Estornes Lasaren *Canto y Cantares de Euskalerrria* liburuaren hitzaurrean dioenez, idazleak, obrak sortzen ez ezik, euskarazko argitalpengintzan ere garrantzi nabarmena du, gerra zibilaren, erbestearen eta zentsura-arazoen gaineratik, euskarazko edo euskal munduaren inguruko lanak argitaratzen jarraitu baitzuen, oztopoak gaindituz.



NABARMENTZEKOA

Estornes Lasa ez zen inoiz izan sarien aldeko. Idatzi zituen lanen artean ere, gutxitan aurkeztu zen lehiaketaren batera —eta aurkeztu zen okasio bakanetan, lehen saria irabazi zuen gainera—.

Halere, urteetan zehar egin zuen lana zela eta, sari ugari eskaini zioten burututako obra nabarmentzeko asmoz.

Honela, 1992an Manuel Lekuona saria eman zioten.

1992an ohorezko euskaltzain izendatu zuten, C. Santamaria, M. Ugalde, A. Zubicaray eta J.B. Etcheberryrekin batera.

23



Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion egunean

Konta ahala omenaldi izan zuen ere, Iruñetik Donostiara, Durangoko Gerediagatik Baionara. Estornes Lasak hil arte lanean jardun zuen arren, ez zuen hainbat lan amaitzeko denborarik izan.


Bernardo Estornes Lasari buruz esateko asko dago, baina ikerle, idazle eta editore honen lanen artean, ildo nagusi batzuk nabarmendu behar dira bereziki: batetik urteetan zehar burutu zuen lan erraldoia Euskal Entziklopediarekin, Hiztegiarekin eta Bibliografiarekin, argitaldari bezala markatu zuen bidea, eta idazle gisa plazaratu zituen lan bikainak etnologia eta literaturaren inguruan.

Auñamendi editorialaren bitartez frankismo-garaiko urte gogorrenetan *Zabalkundea* eta gainontzeko bilduma sorten bitartez, bidea ireki zien euskararen eta Euskal Herriaren inguruko lanen argitalpenei.

Auñamendi Entziklopedia-ren bitartez berriz, urteetan eta aleak argitaratzen joan diren heinean, euskal kulturari buruzko erreferente bibliografikoa bilakatu den lan bikaina sortu zuen.

Azken finean Bernardo Estornes Lasak bi ildo nagusi landu zituen, biak garrantzi handikoak: idazle eta biltzaile etnologiko eta literario gisa ageri baita batetik, eta argitaldari erreferentzial gisa bestetik.

Hala diosku Estornes Lasak idatzitako *Memorias, Recuerdos y andanzas de casi un siglo* liburuan, *Auñamendi* bilduma, 1996, Donostia.



Bernardo Estornes Lasa, Martin Ugalde eta Augustin Zubikarainen erdian ohorezko euzkaltzain izendatu zituztenean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Auñamendi Editoriala*
- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1447-3 (Obra osoa)
84-457-1450-3

L.G.: BI-2.681-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística